Bergarako Udala

# KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA: A KARTAZALAREN IREKIERA

| | |
|---|---|
| **Espedientea:** | Kontratazioaren xedea: Landa lurrak salerosketa bidez erosteko deialdia |
| **Eguna:** | 13/04/2022 |
| **Ordua:** | 10:15 |
| **Bertaratuak:** | Presidentea:<br><br>Ainhoa Lete Zabaleta, Bergarako Udaleko behin behineko Alkatea<br><br>Bokalak:<br><br>Goretti Andrinua Iraolagoitia, Bergarako Udaleko Idazkariaren ordez<br><br>Karmen Urrutia Larrañaga, Bergarako Udaleko Kontu-hartzailearen ordez<br><br>Idazkaria:<br><br>Aritz Oteiza Lasagabaster, Bergarako udaleko Kontratazio Teknikaria |
| **A kartazalaren irekiera** | Bertaratutakoek lizitatzaileen A kartazalak ireki dituzte honako emaitza honekin:<br><br>- **Maria Elena G.A. (15***97*N)**<br>o Jabetza Erregistroko ohar informatiboa<br>o II.Eranskina<br>o III.Eranskina (ez du II.atala bete)<br><br>- **Maite A.L. (15***46*J):** Bi eskaintza egin ditu. Epez kanpo aurkeztu ditu biak:<br>o 2022/2812 Sarrera Erregistroa: 11/04/2022 13:35<br>o 2022/2813 Sarrera Erregistroa: 11/04/2022 13:42<br><br>- **Esteban M.L. (72***81*K):** bi eskaintza aurkeztu ditu. Bietan dokumentazio berdina aurkeztu du.<br>o Nortasun Agiri Nazionala<br>o Eskritura (ahalordetza)<br>o II.Eranskina<br>o III.Eranskina<br>o Jabetza egiaztatzeko eskritura<br>o Jabetza Erregistroko ohar informatiboa<br>o Datuen Taula |

| | |
|---|---|
| | - **Teresa LAM (15***30*P)**<br>o II.Eranskina<br>o III.Eranskina<br>o Datuen taula<br><br>III.Eranskinean ez du finka erregistralaren zenbakia eta azalera erregistrala adierazi. Halaber, ez du jabetza ziurtatzeko ziurtagiririk aurkeztu.<br><br>- **Jesus EO (72***57*Z)**<br>o Nortasun Agiri Nazionala<br>o Jabetza egiaztatzeko eskritura<br>o Jabetza Erregistroko ohar informatiboa<br>o II.Eranskina<br>o Datuen taula<br><br>- **Fermin UM (15***05*C)**<br>o Jabetza Erregistroko ohar informatiboa<br>o II.Eranskina<br>o Datuen taula<br>o Egurra mozteko baimena<br><br>- **Jose Julian GI (15***04*S)**<br>o Nortasun Agiri Nazionalak<br>o Datuen taula<br>o Jabetza Erregistroko ohar informatiboa<br>o II.Eranskina<br>o III.Eranskina<br><br>- **José Manuel MM (15***64*L):** bi eskaintza aurkeztu ditu. Bietan dokumentazio berdina aurkeztu du.<br>o Datuen taula<br>o II.Eranskina<br>o Jabetza Erregistroko ohar informatiboa<br>o Jabekideak (identifikazioa eta bakoitzaren partaidetza)<br>o III.Eranskina<br>o Zedula partzelarioa |
| **Kontratazio mahaiaren erabakia** | Horiek horrela izanda, honakoa ERABAKI DU, ahobatez, Kontratazio Mahaiak:<br><br>LEHENENGOA: Eskaintzak aurkezteko epea 2022ko apirilaren 11n, 13:00ean, amaitzen zela ikusirik, Maite A.L. (15***46*J) lizitatzailea prozesutik kanpo uztea eskaintza epez kanpo aurkezteagatik.<br><br>BIGARRENA: Teresa LAM (15***30*P) lizitatzaileari hiru laneguneko epea ematea jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita jabetza egiaztatu eta III.Eranskineko I.puntua zuzentzeko.<br><br>HIRUGARRENA: Gainontzeko lizitatzaileen A kartazalak ontzat ematea.<br><br>LAUGARRENA: Baldintza Administratibo Zehatzen Agirietako 9.6 atalari |

Bergarako Udala

| | |
|---|---|
| | jarraiki, onartutako eskaintzen A kartazalak ingurumen teknikariari helaraztea eskainitako lur-sailen egokitasuna baloratu dezan. |

Hamaikak eta laurden gutxi direnean, lehendakariak amaitutzat eman du irekitze-ekitaldia, eta nik, idazkari lanetan egon naizen honek, hori ziurtatzen dut.

Sinatuta: **PRESIDENTEA** Sinatuta: **IDAZKARIA**